

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Justina Kareaga Gojenola

Aulesti, Bizkaia
(1928-2015)

Aurkibidea



Biografia



1928ko azaroaren 26an jaio zen Ibarrola auzoko Kareaga baserrian. Aita Kareaga bertakoa zuen, ama Amorotoko Goixo baserrikoa. 7 neba-arrebatatik seigarrena da. Eskolara sei urtetatik bederatzira arte, eta hamaika urtetatik hamahirura arte joan zen. Bederatzi urtegaz Aginagako Arando Guenengoa baserrira joan zen neskame, umezain beharrak egiten batik bat, urte bi eta erdiz egon zen bertan. Hamahiru urtegaz Etxebarrira joan zen berriro ere neskame lanetan, hamasei urtera arte. Hamasei urtegaz klase partikularretara joan zen Aulestin bertan. Beazkoa etxeko semeagaz ezkondu eta ordudanik Kareaga baserrian bizi izan da. Baserriko beharrak egiteaz gain galtzak eta galtzerdiak egiten eta saltzen ere aritu izan da.

Zintak

AUL-008

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-10-15
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. 9 urterekin neskame

- **Erref:** AUL-008/002
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

9 urterekin neskame lanetan hasi zen. Hainbat lekutan egon zen: Markinan, Etxebarrian, Barinagan (Markina), Aginagan eta Narean (Aulesti). Aginagan umezain eta ardizain ibili zen batez ere, baina denetariko lanak egiten zituen. 6 hilabetetan etxera etorri barik egon zen nahiz eta 9 urte izan.

2. Jornalik eta eskolarik barik umezain

- **Erref:** AUL-008/003
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

9 urterekin Aginagara joan zen neskame eta bertako ugazabarekin hartu-eman ona zuen, oso gustura egon zen. Ez zuen jornalik izaten, jatekoaren eta ardi-lanaren truke. Lehenago bere ahizpa egon zen Aginagan. Sasoi hartan ez zen eskolara joan, baina gutun bat idazteko beste bazekien.

3. Neskametzako egunerokoa

- **Erref:** AUL-008/005
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame zegoela eguneroko bizimodua zein zen azaltzen du. Zer jaten zuten kontatzen du: indabak, artoa, taloa...

4. Neskame zegoela, behiak jezten

- **Erref:** AUL-008/013
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Etxebarrian, neskame zebilela, danetariko lanak egiten zituen: umeak zaindu, behiak jetzi, soloko lanak egin... Bertan ikasi zuen behia jezten, eta gerora ere berak jetzi zituen etxekoak. Bi neskame egon ziren etxe berean.</p>

5. Erromerietarako berokiak

- **Erref:** AUL-008/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Etxebarrian Aginagan baino gusturago egon zen erromeriara-eta joaten zelako; Barinagako erromeriara joaten zen eta mutilekin ibiltzeko aukera zuen. Bere nebak soldadutzan ibilitako kapota tindatu eta berak beroki moduan ibili zuen Markinako Kontzezio egunean, baina gerora ez zuen gehiago jantzi. Bilboko lehengusina batek emandako beroki beltz bat izan zuen gerora eta Barinagako erromerian hura izan zen dotoreena.

6. Mutilekin dantzan; neska laguntzen

- **Erref:** AUL-008/017
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>18 urte inguru zitueneko argazki bat du eskuetan. Barinagan Gelatxo soinu-jotzailea egoten zen. Mutilei dantzan egiteagatik kobratu egiten zieten. Domekero egoten zen erromeria Barinagan; oso gustura joaten ziren. Erromeria bukatzen zenean mutilek laguntzen zieten etxera neskei. Arrate eguneko erromeriara ere joaten ziren.</p>

7. Probak

- **Erref:** AUL-008/020
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:28:54. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

San Juanetan Aulestin Markinako danbolin-jotzaileak eta ezpata-dantzariak egoten ziren. Probak ere beti egoten ziren, Justinari asko gustatzen zitzaizkion. Probalari asko inguruko herrietatik etorritakoak izaten ziren. Posturak ere egiten ziren.

8. Frontoia, probalekua eta pilotariak

- **Erref:** AUL-008/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:31:51. **Bukatu:** 00:33:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetatik ezagutu zuen frontoia Aulestin, baina teilatu bakoa zen; oraingo modukoa zen proba-harri eta guzti. Pilotan eliza ondoko horman ibiltzen ziren. Aulestin baziren pilotariak: Ubilla anaiak eta Juan Korta.

9. Senarra eta semea esne-banatzaile

- **Erref:** AUL-008/026
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:39:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Etxean beti izan zuten ganadua. Bere senarra eta semea esne-banatzaile ibiltzen ziren furgonetaz; baserrietako esnea batzen zuen eta Bilborako preparatzen zituen. Enrique Garro ere bere senarrarekin batera aritzen zen sozio. Goizetan esnetan ibili eta gero, arratsaldetan harrobira joaten zen lanean. Aulestiko harrobia betidanik ezagutu du; behargin gehienak Markina aldekoak ziren.

10. Jolasak eta ugariak ziren mamarroak

- **Erref:** AUL-008/030
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:43:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sokasaltoan, txorromorroka eta aponeka jolasten ziren umetan. Zelan olgetan zuten azaltzen du. Lehen txindurriak, saguak, ardiak (arkakusoak), zorriak... ugari egoten ziren baserrietan.

11. Piztiak eta uretako animaliak

- **Erref:** AUL-008/032
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:47:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehen ez ziren azeriak eta basurdeak ikusten, orain, ordea, bai. Putzuetan, zapoak, ugaraxoak (igelak) eta ezkailuak egoten ziren ugari. Esne-galdara eramanez gero ezkailuz betetzen zen galdara. Lehen errekan ezkailuak eta karramarroak ere egoten ziren; gaur egun, ordea, ez dago horrelakorik.

12. Arropak errekan garbitzen

- **Erref:** AUL-008/033
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:47:01. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Errekara arropen xaboia kentzera joaten ziren; lixiba-harria zuten bertan, arropa bertan jotzeko. Ura etxera ekartzen zuten eta harekin garbitzen ziren. "Txinbo" xaboia erabiltzen zuten garbitzeko.

13. Aulestiko dendak

- **Erref:** AUL-008/034
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:49:09. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Aulestin 3-4 denda egon ziren: Zarrabenta, Donatona...; janari-dendak zein tela edo arropa-dendak. Genaro aguazila zapata-konpontzailea ere bazen.

14. Galtzak eta abarkak egiten

- **Erref:** AUL-008/035
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Bere etxean bere amak egiten zituen larruzko abarkak; Justinak tornuarekin eta ardatzarekin haria egiten zuen eta bere ahizpak galtzak. Galtzerdi asko saldutakoak dira beraien etxean. Lehenengo ardi-lana garbitu egin behar izaten zen izpitzeke. Zapi batekin azaltzen du zelan izpitzen zuten. Bere aitak 5 ogerleko ordaindu zituen ardatzagatik.

15. Dotrina

- **Erref:** AUL-008/040
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Dotrinan zer ikasi zuten kontatzen du. Etxean amak irakatsitako errezoa esaten du. Dotrina mutilekin batera ikasi zuten nahiz eta ez jesarri batera. Beraien etxean 4 ahizpek zapata pare berarekin egin zuten lehenengo jaunartzea.

16. Lanbretta eta autoa

- **Erref:** AUL-008/048
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:04:24. **Bukatu:** 01:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Senarrarekin Gernikara astelehen arratsaldetan joaten zen autobusez. Gerora Lanbretta bat zuten eta harro-harro joaten ziren bertan. Beranduago auto zahar bat zuten. Lanbretta ezkondu ostean erosi zuten, 25.000 pezeta ordaindu zuten.

17. Argindarra eta ura

- **Erref:** AUL-008/050
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:07:06. **Bukatu:** 01:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean bi bonbilla zituzten: goiko giltzari ematerakoan beheko amatatzen zen eta alderantziz. Ura ezkondu eta urte askotara ekarri zuten etxera; bere senarrak etxe aurrera ura ekarri zuenean, bere ama asko poztu zela gogoratzen du.

18. Sagarrak saltzen

- **Erref:** AUL-008/052
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:08. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagarrondo asko izaten zituzten eta sagar asko saltzen zuten. Bere aitak inguruko herrietan ere sagarrak erosten zituen Zornotzara eta Gernikara eramateko; zaldiz ibiltzen zen eta gurdia, tribulia, bete-beteta eramaten zuen. Mota desberdinetako sagarrak saltzen zituen: urtebetea, urdin-sagarra, bost kantoia...

19. Ur-sagardaua

- **Erref:** AUL-008/053
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:10:40. **Bukatu:** 01:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Sagardorik ez zuten egiten, baina bai ur-sagardoa; zelan egiten zuten azaltzen du. Zapore mingotsa zuen.

Transkripzioa

- Eta sagardaurik eitten zenduen?
- Ez, etxin ez. Ur-sagardae esaten eutsen ta zozer bai, noz edo noz akordetan naz euki genduzen zerak be, zelan esaten jako horrerri?, barrillek-edo.
- Kupelak eta dolarak.
- Dolararik-eta ez baiña nik ez dakitz zelan apurtzen zittuen sagarrok eta eitten eben ur-sagardae. baia ha edan zein... bueno!
- Eta zelan eitten ben ur-sagardae?
- Jo, jo, jo einde batsak, batsa gelditzen da apurtututekun dana, batsa gelditzen da azala ta zera, zein de por ejemplo egosten dozuz, ze esango dotsut /esangotsut/ ba? sagarra ba membrillu eitteko nahi mermeladie nahi. Ba ondo pasadorien pasaute eta izen biher izeten /bizeten/ da, ta ba han batsa gelditzen da hondokiñe. Ba ha sagardae, haretzek danak kendu ta garbittu-ta eitten eben.
- Ta gero botillatara edo pitxerratara-edo...
- Gero sartu barrikan ta bere txorkotxue sartu bere zulotxuegaz eta txorkue atara ta "txirrr" itturridxen betetan eban bazkaltzeko sasoién sagardauori. Hori akordetan dxat. Honakoxe zulotxu bat euken barrikik ta han sartu txorkotxue ta ha atara ta handik edan.
- Eta, gozoa zan?
- Bai, nehiku! mingostxu-te, ure baiño apetitotxuae baiña arda ederra hobie.
- Edateko modukoa.
- Bai, karo, bai.

20. Don Manuel medikua

- **Erref:** AUL-008/055
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 01:14:30. **Bukatu:** 01:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikiak

Laburpena:

Abadeari garia-edo ematen zitzaion. Medikiak, don Manuelek, hiru hilerik behin dirutan kobratzen zuen; estimua zioten herrian. Etxez etxe ibiltzen zen, ez zuen kontsultarik. Baten bat joan behar izaten zitzaion abisatzera etxera joan zedin.

21. Errota

- **Erref:** AUL-008/058
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:21:13. **Bukatu:** 01:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ibarrolan bazuten errota. Artoa zein garia eramaten zuten irinetarako. Errotariak ehuneko bat kentzen zuen, horrela ordaintzen zitzaion errotariari. Gerra sasoiari errotak zarratuta zeudela-eta, Arratzuraino joaten ziren.

22. Kanpai-hotsak

- **Erref:** AUL-008/060
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:24:12. **Bukatu:** 01:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Lehen kanpai-hotsak ezberdinak izaten ziren: ume bat hilez gero, aingeru kanpaia izaten zen; andrazkoa hilez gero 3 kanpai eta gizonezkoa izanez gero 4 edo alderantziz; sua egonez gero kanpai nagusiak jotzen ziren, agudo joaten ziren laguntzen.

23. Lutoa

- **Erref:** AUL-008/062
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:26:29. **Bukatu:** 01:27:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Etxekoren bat hilez gero urtebetez lutoa jantzten zuten; ostean, medio-lutoa. Lehen larregi egiten zen bere ustez; gaur egun, osterara, gutxiegi.</p>

24. Hileta, gaubela...

- **Erref:** AUL-008/065
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:28:26. **Bukatu:** 01:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Norbait hiltzen zenean, gauean gaubela egiten zen; etxera zetozenentzat ardoa eta jatekoa prest egoten zen. Biharamunean izaten zen hileta-elizkizuna. Gorpua andariak eramaten zuten lepo gainean, eta horiei txuleta bana edo afaria-edo ematen zitzaien. Andari lana sekula ez zuten semeek egiten.</p>

Transkripzioa

- Enterruk ba hiltzen zanin gabin gaubeli itten zan, danari dxedaten emon, datozenari edaten ardaue edo koñak korrientie izeten zan, ba mozkortute danak erroneri bat gabin gaubelan. Ta ba bidxamonien enterru. Ta gero anderuri-eta emoten dxakuen txuleta bana-edo, ze lepun eruten zien ba, ta ba nekie hartzen eben ta emon ein biher dxakuen /bidxakuen/ gero hareri enterrue eitten zanien elizakue, ta harek apaldu eitten eben, lauk-edo.
- Ta nortzuk izeten zien?
- Zelako bizi, zelako bidi ta zemat ein eben edo kanbidxau eingo zirin eurek lau ta lau, ze batentzako por ejemplo Naritik ia zelan ekarri leiken? Ta urrin izen ezkerro ba errelebu.
- Ta euzokoak eruaten eben gorpue ganien?
- Bai hombre, erungo zebe ta etxekuk igul. Baiña lehen semik-eta ez zebe eruten guresorik, hori ez, baiña oin bai.
- Ta enterreu, kanposanture eruten zenduezan?
- Bai. Zuk ez dozu ezetu elizan enterretie?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez dot ezautu.
- Entzunde bez amari-ta?
- Hamen Aulestin enterrau ebenik ez dot iñoz entzun, ez.
- Ta gero enterradore papela nok euikitzen eban? herriko bat egon zan enterradore edo bakotzien bat izeten zan?
- Ez, bat. Hemen nik neuk bat ezautu dot, bi zirin, baiña esan nahi dot gizonezko bi. Nik haretzek ezautu dittudaz bakarrik. Oin ba Markiñetik etorten da.

25. Milizianoak aitaren bila

- **Erref:** AUL-008/071
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:34:51. **Bukatu:** 01:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Milizianoen tropak goitik behera zetoze gogoratzen du. Bezperan, beraien aita hartu zuten azaltzeko non zegoen Zapola -trintxera lekua-, baina alde egitea lortu zuen; hurrengo egunean berriro etorri zitzaizkion bila. Bere nebak 7 urtean ibili ziren soldadu.

Transkripzioa

- Milizianuena esan dogu. Milizianuk etor zien tropie hor goitik behera "prou-prou-prou". "Ointxe datoz, ointxe datoz, ointxe datoz", ta bakizu bentana zuluetatik begire. Ta gero ba pasau zienien ogidxe atzetik, ensegida ogidxe euren ondorik... Ta ba ogidxe ensegida, ta dirue, diru zuridxe, ta ba horixe deket goguen milizianuena. Ta gero horretako lelengo ebixen bezperan-edo gure aitte erun eben altxaute ogetik erun eben erakusteko Zapola nun euen-ta, Zapola esaten eutsen hor goidxen holako trintxerak-edo esaten eutsen zeretan-edo, ta gure aitte euen erakusten-edo, ta bueltan ekar deue ta hona kruzera, ta gure aittek eurek apur bet albora edo bestera ein ebenin, danga igesi eureri, hamen kruzetik hor kalien, kruzetik, ta igesi aittek. Eta esan ei eutsen amari: "banator etxera, baiña ez dakitz zer ein jotan", ta bixamonin ati jo ta: "¿por qué marchó ayer a la noche?" edo holan erdera, aittek bakizu, "¿por qué anoche marchó usted?" "con miedo hombre" bestiek atzera, gure aittek kontestau ein otsen /eintsen/ ta. Ezebe ez otsen ein, baiña "ta-ta" hil be bardin-bardin harek iges ein otsielako ba. Ta ba holaxik, gerra denpori horixe.

- Ta zuk nebarik-edo ez zendun euki?

- Bai, nebak, zazpi urte be soldadu eñikuk.

- Ta nundik ibil zien?

- Hortik, ez dakitz nundik ibilko zien, Andaluzidxen, nik ez dakitz nundik be.

- Ta orduen luzero euren barri euki barik-edo.

- Bai. Bueno, batek eskoli be ona euen ta eitten eban ta. Bestik be karti eitteko beste bai, ta horrek bai. Baiña bakizu zemat din? mutil parie ta zazpi urtin? itzela die.

- Karo, etxien be faltan.

- Etxien bueno!

- Heridu edo zozer ein zien?

- Ezta, sekulo bez, ezebe, ezebe, ezebe, ezebe, ezebe ez ben ein sekulo.

- Lagunek hilko jakiezan ba.

- Ez dakitz hori, baiña eurek behintzet eurek sekulo bala bat bez, ez, sugertosuek izen zin.

26. Hondartzara urtean behin

- **Erref:** AUL-008/074
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:38:13. **Bukatu:** 01:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara urtean behin joaten ziren maistrarekin, baina hankak baino ez zituzten bustitzen. Behin neska bati arrain batek haginka egin zion. Karraspio hondartzarako joan-etorria oinez egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta plaire-ta. Plaire zuek ez ziñien juaten, ezta?
- Ez. Plaire juten giñen urtin baten maistriaz ure ikusten eta uren ortozik hantxe ibiltzen apurtxu baten.
- Bai?
- Ta hamen paseu dxakun, jun giñen ta arraiñek hainke ein otsen neska bateri. Ein leike arraiñek hainke? bai, bai. Iñuzentemente igul etorko zan hondarrin-edo, ta behintzet- eta zelako sustue-ta. Lekitxora jun ta etorri oiñez.
- Karraspidxora edo Isuntzara?
- Ez, ez, ez, Karraspidxora.
- Orduen urtien behin eitten zenduen?
- Bai. Juten giñen, juten giñenin juten giñen.
- Ta ze? gonien altxeu ta...
- Bai. Gona barrenak busti ta geure txanka pistolok, hantxe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com